

EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAK HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOAREN OINARRIAK JASOTZEN DITUEN DOKUMENTUARI BURUZ EGINDAKO TXOSTENA

BERTARATUAK ASISTENTES

Nélida Zaitegi, presidentea
Igone Abio
Andoni Agirrebeitia
Xabier Aizpurua
Yoanna Arambalza
M^a Luisa Aramburu
Danel Bringas
Josean Bueno
Koldo Castrillo
Xabier Elorza
Néstor Eriz
Lurdes Errasti
Xabier Etxaniz
Iker Frade
Pablo García de Vicuña
Amaia Jauregiberri
Juan Carlos Jauregui
M^a Luisa Jaussi
Javier Laiseca
Carmelo Martínez
Mari Tere Ojanguren
Mikel Pagola
Begoña Pedrosa
Ana Puente
Ibai Redondo
Ismael Redondo
Ainhoa Rotaetxe
Axier San Miguel
Lucía Torrealday
Usua Urbieta

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuraren 2018ko maiatzaren 9ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek gehiengoz eman du ondoko txostena: Hezkuntzaren aldeko Akordioaren oinarriei buruz.

SARRERA

Euskadiko Eskola Kontseiluari "Hezkuntzaren aldeko Akordioa" aurkeztu zaio Hezkuntzaren Euskal Legea lortzeko bidean lehen urratsa gisa.

Dokumentu hau bost lantaldek egin dute, landutako gaien inguruan adituak diren pertsonaz osatutako bost lantaldek, alegia: 1.- Hezkuntza Sistemaren Modernizazioa. 2.- Bizikidetzeta. 3.- Hizkuntzak. 4.- Ebaluazioa. 5.- Ikastetxeen autonomia.

Baita ere jaso dira hainbat kolektibo eta pertsonak Irekia webgunearen bitartez bidalitako ekarpenak, eta horren guztiaren emaitza oinarritzko dokumentu berri batean bildu da, zeina EEKri helarazi baitzaio bere irizpena eman dezan.

Dokumentua Eskola Kontseiluari entregatzeko unean, sailburuak eskatu zion kontseiluari egin zitzala dokumentua hobetzeko ekarpenak, horretarako bilatuz gure komunitatean hezkuntzari buruz dauzkagun ikuspegi desberdinen alderdi komunak.

Era berean, sailburuak esan zuen dokumentu honetan jasota daudela Hezkuntzaren Legea inspiratuko duten oinarritzko puntuak. Dokumentuak ZER galderari erantzuten dio, eta aurrerago aztertu beharko da NOLA egingo den.

Lan horrek Kontseiluari planteatzen dizkion erronkak azaldu zituen lehendakariak, eta orobat jakinarazi zuen zein izango den erronka horiei erantzuteko martxan jarriko den prozedura.

“Barneko elkarrizketa eta akordio gaitasunak indartzea, elkarrizketa eta kontsensua lideratu eta bideratzeko eta elkarrizketarako jarrerak eta jokabideak sustatzeko, eta bide horretatik, denon adostasuna duen txosten bat egiteko; aniztasunetik akordiorako bidea egiteko gai izatea, eta iritzi eta proposamen desberdinak baliatzea Kontseilu osoak onartuko duen marko propio bat eraikitzeke; gogoeta sakon bat egitea errealitatea sinpletzen duten esloganetatik irteteko eta konplexutasunean, argudio serio eta zorrotzetan murgiltzeko, horiek emango baitiete balioa gure proposamenei; gatazkatik eta jarrera itxietatik irtetea, eta demokrazia sakon baterantzko bidea egitea, non ahots guztiek aurkituko baitute beren tokia eta non guztiak beharrezkoak izango baitira alternatiba indartsu eta partekatuak eraikitzeke; kontuan izatea gure gizartea anitza dela, aniztasun hori baloratzea, eta aurrera egitea pertsona guztientzat hobeak eta justuagoak izango diren eszenatokiatarantz, beti ere nortasuna galdu gabe eta norberaren interes legitimoak defendatuz.”

Planteamendu horiek partekatu eta adostu ziren EEKko kideek martxoaren 1ean egin zuten lan-saio batean, non sektore desberdinetako pertsonaz osatutako hiru lantalde sortu baitziren.

Era berean, zeregin eta bileren egutegi bat egin zen, EEKk txostena entrega dezan maiatza amaitu baino lehen.

Esan bezala, hiru lantalde sortu dira beren borondatez talderen batean sartu nahi izan duten pertsonekin, eta apirilaren 1ean Kontseiluaren egoitzan egindako saioan hainbat ekarpen egin zituzten, txosten batean jaso izan direnak; ondoren apirilaren Batzorde Iraunkorreko 19 eta 25eko bileretan txosten hori eztabaidatua izan da.

ONDORIOAK

1. Dokumentuaren balorazio orokorra.

Kontseiluko kide guztiei (44) bidali ondoren (birritan erreklamatu da), 19 erantzun jaso dira, balorazio hauekin:

Blokeak	Batez bestekoa	Moda	Bikaintasun indizea*
1	4,0	4	%72,2
2	3,9	4	%73,7
3	3,7	4	%76,5
4	3,9	4	%72,2
5	4,1	4	%78,9

*4 edo 5eko balorazioa

2. Dokumentuari eginiko aipamen orokorrak

Kontseiluak balorazio positiboa egin dio dokumentuaren edukiari. Dena den, gustura ikusiko luke dokumentu zehatzagoa eta garatuagoa atal batzuetan, baina ulertu nahi du prozesuaren hurrengo faseari dagokiola.

Kontseiluaren ustez oinarrizko gaiak jasotzen ditu, baina badira oinarrizkoak diren beste batzuk, dokumentuan jasota ez daudenak: Euskal Hezkuntza Sistemaren egitura eta arkitektura, finantzaketa, euskalduntzea, plangintza, erlijioaren tratamendua, ... Hala ere, Kontseiluak dokumentua landu du eta hainbat ekarpen proposatu ditu berau hobetzeko asmoz.

Dokumentu hau onartzen da, kontuan izanik hezkuntzako sektore eta eragile guztiek erantzukizuna hartua dutela prozesuarekin aurrera jarraitzeko; eta, hurrengo faseetan eragile bakoitzak bere irizpide eta interes legitimoen arabera proposamenak mantendu ahal du.

1. HEZKUNTZA SISTEMAREN MODERNIZAZIOA

Kontseilua ados dago atal honen helburu nagusiarekin eta proposatzen dituen oinarrizko printzipioekin. Atal honen batez besteko balorazioa 4 puntukoa izan da, eta %72,2ko bikaintasun indizea lortu du (4 edo 5 puntu eman dizkieten pertsonen portzentajea).

A.- Aldaketa proposamen zehatzak:

1.3.1. Irakasle ahaldundu eta prestigiatura behar berriak eta ikasteko era berriak izango dituen ikasleriari erantzuteko.

- 3. paragrafoan, "Irakasleen profil konpetentzialari dagokionez, ezinbestez loturik egon behar du hezkuntzaren helburu eta *ikasleen irteera-profilekin*" dioen lekuan, proposatzen da "**ikasleen irteera-profilekin**" jartzea, ez delako posible ikasle guztientzat profil bakarra izatea.
- Era berean, paragrafoaren amaieran hau eranstea proposatzen da: "**Erronka handia da ikasleak prestatzea bizitzarako, hiritar izateko eta XXI. mendean lan egiteko**".

1.3.2. Eraldaketa metodologikoa eta ikaskuntza-ingurune berrien garapena, hezkuntza-paradigma berriari erantzuteko oinarriak:

- 2. paragrafoan, proposatzen da “Hau da, apustu egitea eskatzen du heziketa pertsonalizatuago eta pedagogia aktiboago eta esperientzialagoen alde...” esaldiari haxe gehitzea: **behar beste kontrastatuak**.
- Eta segidan, “ikasleen behar eta espektatibetan oinarrituta egongo diren” dioen tokian, haxe eranstea: **“beren garapen pertsonala, soziala eta profesionala lortzeko”**.

1.3.3. Teknologia berriak hobeto ikasteko eta ezagutzaren gizarte interkonektatu eta kohesionatu baterako hiritar kompetenteak garatzeko

- 15. orrian paragrafo hau berridaztea proposatzen da, nahasgarria delako.

Globalizazioaren eta iraultza teknologikoaren ondorioz, geroz eta askotarikoagoa den eta interkonektatuagoa dagoen mundu bat sortu da, non ezagutzan oinarritutako gizarte lehentasun handiko helburu bilakatu den. Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak, beste teknologia berriekin batera, instrumentu boteretsuak dira ezagutza hori sustatzeko. Eskolak, ondorioz, teknologia horiek guztiak —digitalak eta sortzen ari direnak— barneratu eta erabili behar ditu gizarte berrirako hiritar kompetenteak prestatu ahal izateko.

Kontseiluak idazkera alternatibo hau proposatzen du:

Globalizazioaren eta iraultza teknologikoaren ondorioz, geroz eta askotarikoagoa den eta interkonektatuagoa dagoen mundu bat sortu da. Ezagutzan oinarritutako gizarte horretan, Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak beharrezko tresnak dira. Eskolak, ondorioz, teknologia horiek guztiak —digitalak eta sortzen ari direnak— barneratu eta erabili behar ditu hiritar kompetenteak, hau da, gaur egungo eta etorkizuneko gizartean bizitzeko, parte hartzeko eta gizarte hori humanizatzeko gai diren hiritarrak prestatzeko.

2.- BIZIKIDETZA.

Kontseiluak atal honi buruz egin duen balorazio orokorra positiboa da. Batez besteko balorazioa 3,9 puntukoa izan da, eta %73,7ko bikaintasun indizea lortu du (4-5).

- Hala ere, Kontseiluak faltan bota ditu bizikidetza positiboa, hezkidetza eta kultura artekotasuna bezalako gaiak, hezkuntzaren zutabe garrantzitsuak direlako. Eranskin gisa atxikita dago gai horiek jorratzen dituen epigrafe berri baten idazkera-proposamena.

A.- Aldaketa proposamen zehatzak:

2.1 Abiapuntua

- 2. paragrafoan, testu hau eranstea: **Hortaz, dibertsitatea aberastasun bat da, eta berau kudeatzen ikasi behar dugu berdintasuna eta bikaintasuna lortzeko hezkuntzan. Horretarako, garrantzitsua da sustatu beharreko balio bat bezala ulertzea, eta ez gainditu beharreko oztopo bat bezala, zeren dibertsitatean baitago elkarrekiko errespetua, lankidetzeta eta ikaskuntza partekatua.**
- 3. paragrafoan, “...jatorriarekin loturiko desberdintasunak orekatzeko eta eskola-porrota edo eskola-uzte goiztiarra murrizteko neurriak hartzea” esaldiaren ordezkari hau jartzea: **“jatorriarekin loturiko desberdintasunak gainditzeko laguntzeko neurriak hartzea, ikasle guztiek emaitza onak lor ditzaten eta eskola-uzte goiztiarraren arriskua gutxitu dadin”.**
- 5. paragrafoan, “zenbait desoreka ikusiko ditugu;” esaldiaren ordezkari “desorekak ikusiko ditugu” jartzea.
- 6. paragrafoan, “irakaskuntzaren kalitatea” terminoa kentzea esaldi honetatik: ISEK (indize sozioekonomiko eta kulturala) apaleko ikasle asko izateak –beste aldagai batzuen artean– ikaskuntza-ingurunean **eta irakaskuntzaren kalitatean** eragiten du, 2015eko Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzekin interpretatu daitezkeen moduan.
- Dokumentuaren atal honetan bakarrik ageri diren oin-oharrak ezabatzea.

2.3.1. Elkarbizitza, ikastetxe nabarraren ardatza, gizarte kohesionatua izateko

- Epigrafearen amaieran testu hau gehitzea:

“Ikastetxeetako elkarbizitzaren kudeaketak hezkuntza-komunitatearen lanaren zutabeetako bat izan behar du”. Parte-hartzea eta denekiko errespetua beharrezko balioak dira.

Era berean, ikasleek askatasunez garatu behar dute bere nortasuna eta integralki prestatu behar dute bere burua, elkarbizitza demokratikoa ahalbidetzen duten balioetan oinarrituta, eta, besteak beste, ondoko hauek sustatuz: gaitasun eta jarrera kritikoa, berdintasuna, justizia, parte-hartzea, dibertsitatea eta kontzientzia askatasuna errespetatzea, elkartasuna, ardura soziala, tolerantzia eta elkarrekiko errespetua, eta giza eskubideen defentsa, horrela sustatuz eta bermatuz irakasleek, familiek eta ikasleek ikastetxeen kudeaketan demokratikoki parte hartzeko duten eskubidea”.

2.3.2. Askotariko ikasleentzat eta berezitasun propioak dituzten ikastetxeentzat kalitatezko hezkuntza-aukerak bermatuko dituzten esku-hartze eredu integral eta malguak.

- 2. paragrafoan, “konpentsatzeko” terminoa kendu eta “**desberdintasunak gainditzeko**” erabiltzea.
- 3. paragrafoan, “Hezkuntza-Administrazioak berrikuntza pedagogikoa eta hezkuntza-komunitatearen prestakuntza bultzatuko ditu” dioen tokian, haxe jartzea: “Hezkuntza-Administrazioak **beharrezko bitartekoak jarriko ditu zeregin horri aurre egiteko, eta gainera** berrikuntza pedagogikoa eta hezkuntza-komunitatearen prestakuntza bultzatuko ditu”.

2.3.4. Familien eta hezkuntza-eragileen erantzunkidetasuna, elkarbizitza bultzatzeko funtsezkoa.

- 4. paragrafoaren amaieran haxe eranstea: **Oro har, familien prestakuntzak -eurek aukeratutako arloan- eragin positiboa du ikaskuntzaren hobekuntzan eta elkarbizitzan.**
- Kontseiluak faltan bota du bizikidetzaren positiboari, ko-hezkuntzari eta kultura artekotatasunari buruzko atal bat, hezkuntzaren zutabe garrantzitsuak direlako. Eranskin gisa atxikita dago gai horiek jorratzen dituen epigrafe berri baten idazkera-proposamena.

3. HIZKUNTZAK

Kontseilua ados dago atal honen helburu nagusiarekin eta proposatzen dituen oinarritzko printzipioekin. Batez besteko balorazioa 3,7 puntukoa izan da, eta %76,5eko bikaintasun indizea lortu du (4-5).

Ez da egin testua aldatzeko proposamen zehatzik.

A.- Aldaketa proposamen zehatzak:

3.3.1. Euskara ardatz duen hezkuntza sistema eleanitza.

- 4. paragrafoan, “honako gaitasun-mailak ezarriko dira helmuga bezala” dioen tokian, **gutxieneko helburu** bat zehaztea proposatzen da.

4.- EBALUAZIOA

Kontseilua ados dago atal honen helburu nagusiarekin eta proposatzen dituen oinarriko printzipioekin. Batez besteko balorazioa 3,9 puntukoa izan da, eta %72,2ko bikaintasun indizea lortu du (4-5).

Ez da egin testua aldatzeko proposamen zehatzik.

5.- AUTONOMIA

Atal honek 4 edo 4tik gora puntu jaso ditu hasierako balorazioan (5etik) Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurako parte-hartzaileen %78,9gandik, eta bost ataletako balorazio altuena lortu du, 4.1eko batez besteko puntuaketarekin.

A.- Aldaketa proposamen zehatzak:

5.1. Abiapuntua

- 4. paragrafoan, “Kalitatea Hezkuntzan programaren arabera egiaztatutako ikastetxeei autonomia gehiago emateko, zuzendaritza konprometitu eta egonkorrak zituzten arren” dioen tokian, hauxe gehitzea: “Kalitatea Hezkuntzan programaren arabera egiaztatutako ikastetxeei **eta ikaskuntza komunitateen sareko zenbait ikastetxeri** autonomia gehiago emateko, zuzendaritza konprometitu eta egonkorrak zituzten arren”.

5.3.1. Ikastetxeen autonomia handitzea, beren hezkuntza-proiektuak hobeto garatzeko.

- **3. paragrafoan**, “Horrenbestez, ikastetxeak gaitu behar dira, orain arte, ikastetxe publikoetan Administrazioak bakarrik egiten zituen kudeaketako eta antolaketako esparruetan esku hartu dezaten, hala nola funtsen kudeaketan...” dioen tokian, hauxe gehitzea: “**zerbitzu osagarrien kudeaketan (garraioa, jangela, e.a.)**, langileen aukeraketan edo antolaketa-egitura ezartzeko gaitasunean”.
- **4. paragrafoan**, “eta laguntza-, segimendu- eta ebaluazio-sistemekin indartzea” dioen tokian, “**araudiekin**” hitza sartzea.
- **5. paragrafoaren amaieran** hauxe gehitzea: betiere helburutzat harturik behar adinako zorrotasun zientifikoarekin esperimendatzea eta ebaluazio-sistema zehatz eta sistematikoak aplikatzea, proiektuak berrorientatzeko, hala behar denean.

5.3.4. Ikastetxeko Proiektuarekiko hezkuntza-komunitatearen inplikazioa, autonomia ondo garatzeko berme.

- 2. paragrafoan, “bai guraso-elkarteen bidez” dioen tokian, hauxe gehitzea: **bai ikastetxe-sareen arteko lankidetzaren bidez**, bai ikasle-elkarteen, klaustroen, eskola-kontseiluen eta bestelakoen bidez.
- Azken paragrafoan, “ikasleek, familiek eta ingurune hurbilenak ikastetxearen proiektuan parte hartu ahal izan dezaten” dioen tokian, hauxe gehitzea: “ikasleek, familiek eta ingurune hurbilenak (**auzoa, herria, e.a.**) ikastetxearen proiektuan parte hartu ahal izan dezaten”.

Eranskina

2.3.5. Elkarbizitza positiboa, hezkidetza eta kultura artekotasuna: hezkuntzaren zutabe garrantzitsuak

Elkarbizitza positiboa sustatzea hezkuntza-komunitate osoaren erantzukizuna da, eta lotura zuzena du oinarrizko gaitasun guztiekin, baina bereziki gaitasun pertsonalen garapenarekin (autonomia, auto-kudeaketa eraginkorra, emozioen erregulazioa eta erabakiak hartzeko gaitasuna) eta gaitasun sozialekin (komunikazioa, enpatia, gatazken kudeaketa positiboa).

Ko-hezkuntza funtsezkoa da ikasle bakoitzaren garapen integralerako. Gaur egungo gizarteak emakume eta gizon gisa eraikitzen gaitu, hau da, haurtzarotik hasi eta bizi osoan zehar bereizirik gizarteratzen gaitu eta aukerak mugatzen dituzten estereotipoak eta genero-rolak irakasten dizkigu. Bestalde, formalki berdinzalea den gure gizarte honetan desberdintasunak agertzen dira bizitzako hainbat alderditan, eta indarkeria matxista gaitz sozial bat da. Horregatik, eskolako bizitzan esplizituki landu behar dira berdintasunerako hezkuntza eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna, horrela ikasleek tresnak garatuko baitituzte gure gizartean kontzientzia hartzeko, estereotipoak eta genero-rolak gainditzeko, bazterkerien eta genero-indarkerien aurka aritzeko, beren nortasuna askatasun handiagoz eraikitzeko eta aniztasun afektibo-sexuala positiboki baloratzeko.

Era berean, garrantzia eman behar zaio kultura arteko hezkuntzari, ikasleek tresnak garatu ditzaten beren edo besteen estereotipo eta aurreiritzi arrazistak edo klasistak detektatzeko eta gainditzeko. Hori biziki garrantzitsua da, zeren ikerketek frogatu baitute atzerriko ikasleei, desabantaila sozio-ekonomikoak dituzten ikasleei eta oro har ikasle minoritarioei buruzko irakasleen irudi eta espektatibek eragin handia dutela ikasle horien eskolako lorpenetan eta ongizatean.

Erljio-dibertsitatea errealitate bat da, euskal gizartean beti presente egon dena, baina orain askoz nabarmenagoa dena mende honetako immigrazioaren ondorioz, eta batzuetan hainbat zailtasun sortzen ditu. Erljio-irakaskuntza ez da oztopo izango familia bat funts publikoz finantzaturako edozein ikastetxetan eskolatzeko. Bestalde, beharrezkoa da ikasle guztiek gure gizartean existitzen diren erlijioak ezagutzea eta erlijioa zer den ulertzea, eta orobat errespetuzko eta elkarbizitza positibozko jarrera bultzatzea sinesmen erlijioso desberdinak dituztenen edo halakorik ez dutenen artean.

Horrek esan nahi du irakasleek ere beharrezko prestakuntza jaso beharko dutela gai horretaz (elkarbizitza positiboaz, hezkidetzaz eta kultura artekotasunaz), ikasleak modu horretan hezteko. Irakasleek alde aurretiko prestakuntza jaso behar dutenez, *de facto* beharrezkoa da euskal sistemako unibertsitateek horri buruzko prestakuntza ematea ikasle guztiei, eta baita ere jarduneko irakasleei.

Bilbon, maiatzaren 9a

**EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAK HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOAREN
OINARRIAK JASOTZEN DITUEN DOKUMENTUARI BURUZ EGINDAKO TXOSTENARI
STEILAS-EK AURKEZTUTAKO BOTO PARTIKULARRA**

STEILASentzat onartezina da Hezkuntza Sailak hezkuntza legea sortzeko daraman prozesua, "Hezkuntzaren aldeko akordioa" abiapuntu izanik. Lege baterako funtsezkoak diren elementuak eztabaidatik kendu ditu Jaurlaritzak egin duen proposamenarekin. Testuinguru honetan Euskadiko Eskola Kontseiluak proposatzen duen **ebazpenak askozaz kritikoagoa izan beharko lukeela uste dugu**, segituan azaltzen denaren arabera:

1. Eusko Jaurlaritzak proposatutako "Hezkuntzaren aldeko akordioak" ez du balio lege berri baten oinarria izateko.

"Hezkuntzaren aldeko akordioan" lege baterako funtsezkoak diren gaiak eta erabakiak ez dira agertzen, alde bakarreko erabakiaz. Honela, eztabaida erabat bideratu da arlo jakin batzuetara, beste batzuk saihestuz. Edukietan ez ezik, prozeduretan eta epeetan ere oinarrizko dokumentuetan kontrol zehatza izan du Hezkuntza Sailak.

Bestalde, "akordio" horretan proposatzen diren ideia gehienek ez dute lege berri bat exijitzen; izan ere, dagoen legediarekin garatu daitezke, prozedurak badaude horretarako.

Gauzak horrela, lege bati begira honelako edukiekin akordioa proposatzea iruzur itxura hartzen du, adostasuna, partaidetza eta akordioa antzezteko egina, lege berriaren asmoa zuritzekoa.

2. Eusko Jaurlaritzak proposatutako "Hezkuntzaren aldeko akordioak" oinarrizko gabezia larriak ditu.

Hasteko, egungo egoeraren analisia eta diagnostikoa falta da; eta hori egiteari derrigorrezkoa deritzogu, abiapuntuak, beharrak eta erronkak aztertzeko. Non gauden zehaztea beharrezkoa da nora joan nahi dugun eztabaidatzen hasi aurretik.

Gainera, testuan planteatzen diren edukiak askotan oso zabalak dira, anbiguoak: garapen oso desberdinak eduki ditzaketen ideiak dira. Konpromisorik eta zehaztasunik gabeko ideia orokor asko daude, eta horregatik ere desegokia deritzogu dokumentuari. Nork, norekin eta nola hartuko ditu ideia orokor horiek bideratzeko erabaki eraginkorrak?

Beraz, EEKak "Hezkuntzaren aldeko akordioa" izeneko dokumentua hobetzeko egiten duen proposamena, ebazpenean jasota, elementu positiboak dituen arren, oso motz geratzen dela iruditzen zaigu.

HORREGATIK GUZTIAGATIK, EZEZKO BOTO PARTIKULARRA EMATEN DIOGU ESKOLA KONTSEILUAREN EBAZPENARI. BIDE BATEZ HEZKUNTZA SAILARI ESKATZEN DIOGU, LEGE BERRIA EDOTA HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIO SENDOA SORTZEKO ASMOA BALDIN BADU, ESKOLA KOMUNITATEAREN KIDE GAREN GUZTIOKIN BENETAKO EZTABAIDARI ETA PARTAIDETZARI HEL DIEZAIOLA

Josean Bueno Saez de Albeniz - STEILAS

**EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAK HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOAREN
OINARRIAK JASOTZEN DITUEN DOKUMENTUARI BURUZ EGINDAKO TXOSTENARI
CCOO-EK AURKEZTUTAKO BOTO PARTIKULARRA**

CCOO Irakaskuntza, la Federación de Enseñanza de CCOO Euskadi, presenta el siguiente voto particular al dictamen aprobado en el Pleno del Consejo Escolar de Euskadi del pasado 9 de mayo de 2018:

- 1. El documento “Bases para el Acuerdo” no incorpora, de forma deliberada, criterios básicos para esta organización sindical que deberían formar parte de la discusión y posterior consenso, si fuese posible.**

En coherencia con lo expuesto, CCOO Irakaskuntza no puede aceptar que asuntos tan importantes para definir el futuro del sistema educativo que la comunidad vasca necesita, como la financiación, la distribución y funciones de las dos redes educativas actuales, el entramado normativo que lo sustenta (LOMCE, Heziberri), entre otros, continúen excluidos del debate y no sean ni siquiera nombrados en el documento. El dictamen del Consejo Escolar de Euskadi dedica un par de párrafos a situar esta carencia, pero no presenta propuestas concretas, consecuencia directa de no haberse dedicado tiempo ni espacio a debatirlas.

- 2. El documento “Bases para el Acuerdo” carece de algo fundamental a la hora de sentar bases consensuadas como el análisis de situación de la educación que tenemos. Cualquier acuerdo futuro, que no esté sólidamente asentado en un diagnóstico veraz, tendrá muchas dificultades para conseguir los objetivos propuestos.**

El espacio que el documento analizado dedica a cada capítulo señalado, bajo el epígrafe “Punto de partida”, es absolutamente insuficiente y no responde a la pretensión manifestada por este sindicato.

- 3. El documento “Bases para el Acuerdo” ignora potencialidades de la actual Ley de Educación Pública Vasca en asuntos que, sin embargo, trata después, como es la autonomía de centros.**

CCOO Irakaskuntza ya se posicionó de forma contraria a la consulta sobre la posibilidad de elaboración de una nueva ley educativa e insistió en que para modificar un marco tan amplio y consensuado -como la ley de 1993- había que entender que estaba superada, situación que no es real en un tema tan importante para el desarrollo de nuestro sistema educativo como es la autonomía de centros.

Por todo ello, los representantes de CCOO Irakaskuntza hemos dado nuestro voto negativo al dictamen y presentamos este Voto particular.

Bilbao, 10 mayo 2018

Ismael Redondo Rojo
Pablo García de Vicuña Peñafiel

**EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAK HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOAREN
OINARRIAK JASOTZEN DITUEN DOKUMENTUARI BURUZ EGINDAKO TXOSTENARI
EHIGEK AURKEZTUTAKO BOTO PARTIKULARRA**

**“HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOA” DOKUMENTUAREN BOZKETA
PARTIKULARRA**

Gobernuak aurrez zehaztutako gaietara murriztua dagoen eztabaida urri baten aurrean gaude. Ez ditu ezinbestekoak deritzogun hainbat kontu jasotzen. Ez dira adostasun parte-hartzaile, zabal eta iraungarria lortzea helburu duen edozein akordioaren alderdi garrantzitsuenak aztertzen.

Dokumentu hau ez da etorkizuneko Euskal Hezkuntza Lege bateruntz aurrera egiteko lehen pausua.

Dokumentua eskasa eta partziala da. Ez ditu barne hartzen itun edo/eta lege batek jaso beharko lituzkeen oinarrizko eta funtsezko gaiak. Jasotzen dituen bost gaiak garrantzitsuak dira dudarik gabe, baina ez dira nahiko. Oinarrizko adostasun batek ezinbestean barne hartu behar ditu hezkuntza-ereduaren definizioa eta lehentasunak, baita beronen finantzaketa ere, eta diagnostiko batetik abiatu behar da.

Ondorioz, dokumentu bat aurreneko pauso bezala hartzeko, kontu hauei ere heltzen dien eztabaida ireki behar dela uste dugu:

1. Gure hezkuntza-sistemaren diagnostikoa. Egungo egoerari zein etorkizunerako nahi dugunari buruzko akordio edo adostasun batetik abiatu behar da paktua. Euskal Eskola Publikoak gure gizartean egindako paper egituratzailea aitortu behar da eta aztertu egin behar da 1993tik gaur arte egindako ibilbidea, baita aldaketa sozial eta legeri dagozkionak ere. Aztertu behar dira ere Estatuko hezkuntza-esparruak ezartzen dituen mugak eta irakasle kidegoaren eredu publikoa.

2. Itun batek sistemaren egungo antolaketa, *statu quo*-a eta honen ondorioak aztertu behar ditu. Ez da eztabaidatu gure hezkuntza-sistemaren *statu quo*-a eta ez dago agendetan, nahiz eta behar dituen erreformak aztertze beharra egon. Zentzu honetan, kezkatu egiten gaitu dokumentuak eskola publikoa behin ere ez aipatzea. Hezkuntza onartutako eskubide bat da eta botere publikoek dute soilik berau garantizatzeko ahalmena; beraz, Euskal Eskola Publikoaren zeregin egituratzailea eta funtsezkoa aitortu behar dira.

3. Finantzaketa-eredua. Azken urteetako aurrekontuei dagozkien hezkuntza-politikak berrikusi behar dira, zeintzuk Europako gainontzeko herrialdeetatik urrundu gaituzten hezkuntza-eredua kontsolidatu duten. Hezkuntza arloan aplikatu diren doitze politikek negatiboki eragin diote hezkuntza publikoari, sare pribatuko itunek gora egin duten bitartean.

4.-Aniztasunari erantzun. Gizartearen aniztasunaren etengabeko hazkundera erronka bat da hezkuntzarako. Segregazioa gure hezkuntza-sisteman ematen ari den errealitate objektiboa da eta konpondu behar diren anomaliak egiaztatzen dira. Hezkuntza-itunen sistema berrikusi eta erreformatu behar da hezkuntzaren doakotasuna zein hezkuntzarako sarbidea aukera berdintasun egoeran bermatzeko.

Gizarte kohesio eta hezkuntza inklusiorako hezkuntza eredu berria behar dugu. Hezkuntza Lege berri bat egiteko prozesua aukera bat izan behar da egungo sistema erreformatu eta aurrekoaren mugak eta ahultasunak gainditzeko, egun dauden desberdintasunak konpentsatu ta guztientzako kalitatezko hezkuntza integrala bermatzeko. Zentzu honetan, gizarteak premia behar dituen hobekuntza sozialerako helburuak lehenetsi behar dira, interes korporatibo, ideologiko edo segregazioa helburu dutenen gainetik. Horretarako, erronka berri hauei erantzungo dieten eta egungo *statu quo*-a gaindituko duten politika berriak behar ditugu.

BAIKARA Usoa Urbieta
BIGE Ana Puente
DENON ESKOLA Lurdes Errasti

Bilbao, 2018.05.11

**EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAK HEZKUNTZAREN ALDEKO AKORDIOAREN
OINARRIAK JASOTZEN DITUEN DOKUMENTUARI BURUZ EGINDAKO TXOSTENARI LAB-
EK AURKEZTUTAKO BOTO PARTIKULARRA**

LABek ez du babesten “Hezkuntzaren Aldeko Akordioa” dokumentuari Euskadiko Eskola Kontseiluak egindako ebazpena. Ondokoak dira gure ezezkoaren arrazoi nagusiak:

1. Metodologia. Eusko Jaurlaritzaren neurrira egindako prozesua izan da, presaka eta hausnartzeko ia tarterik gabe gauzatu nahi izan du Eskola Kontseiluak ebazpena. LABek osoko zuzenketa bat aurkeztu zion aurkeztutako 5 oinarriei. 31 orri, 15 ardatz eta 54 neurri zehatz jasotzen zituen proposamena ekarpen kualitatiboa izan arren ez zen onartu, forma aldetik egokia ez zelakoan. Ondorioz, atalez atal dokumentua hobetu, osatu eta zehazteko 49 ekarpen zehatz aurkeztu genituen, hauek ere atzera bota zituen Eskola Kontseiluaren iraunkorrak: proposamen batzuk orokorregiak omen, beste batzuk zehatzegiak eta beste batzuk beste fase baterako egokiagoak. Gauzak horrela, maiatzaren 9ko osoko bilkurarako aurkeztutako ebazpenari 26 emendakin aurkeztu genizkion, testuari erabat lotutakoak eta zenbait kasutan hitz bat edo beste gehitzea besterik ez zelarik proposatzen. Berriz ere, ekarpen guztiak atzera bota ziren. Beraz, LABek proposamena osatu eta zehazteko egindako ekarpen guzti-guztiei ezezkoa eman die Euskadiko Eskola Kontseiluak, argi eta garbi rodilloa pasatuaz.

2. Oinarri orokorrak eta anbiguoak. Proposatutako 5 oinarriak (Modernizazio, Bizikidetz, Hizkuntzak, Ebaluazioa eta Autonomia) etorkizuneko hezkuntza legearen oinarrietako batzuk izan behar dira LABen aburuz. Badaude elementu interesgarriak oinarri hauen artean, baina, proposatuta dauden bezela, orokorrak, kontraesankorrak eta autokonplazienteegiak dira, ez dute bermatzen modernizazioa, bizikidetz, euskararen berreskurapena, ezta ebaluazio hezitzailea eta autonomian urrats kualitatiboak ematea ere. Gure ustez, Gasteizko Parlamentuari atek irekita uzten zaizkio aldaketa esanguratsurik babe, hezkuntza legea erreformatzeko. Adibidez, A eta B ereduaren desagerpena eta euskalduntzea bermatuko duen Murgiltze Sistema eraginkorra eratzeari ezetz esan dio Eskola Kontseiluak, funtzionatzen ez duten A eta B ereduaren betikotzeko arriskuari atek irekita utziz.

3. Oinarri gehiago behar dira. Euskal Curriculum, Hezkidetz, Finantziarioa eta Publikotasun eredu berria. Lau oinarri hauek, lau zutabe hauek gehitzea proposatu dugu Hezkuntza Lege Berrirako, baina, Euskadiko Eskola Kontseiluak geroko geroko uztea pentsatu du edota ez ditu onartu zuzenean. 4 hauek oinarriak eta zeharko gaiak dira, Lege Berriaren arkitekturaren zutabe eta oinarri, erabat hankamotza litzateke gai hauek jasoko ez lituzkeen proposamena.

4. Baliabideak eta finantziarioa. Hezkuntza duala eratzen ari da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, errenta baxuko pertsonak, zenbait eskola zehatzetara bideratzen ari direlarik. Hala, segregazio prozesuak errenta edo jatorriaren arabekoak, baina, baita sexua, hizkuntza eta erlijioaren arabekoak ere hedatzen ari dira gure herrian. Aukera berdintasuna eta inklusioa bermatzeko dozenaka proposamen egin ditugu, guztiak baztertuak izan dira. Proposamen pedagogikoez gain, ekonomikoak ere egin ditugu dugun hezkuntza sistema eraldatzeko ezinbestekoa delako inbertsioa areagotzea. Besteak beste, langileon lan baldintza duinak bermatuz, hezkuntza duina bermatzeko proposamenak egin ditugu. Hauek ere ez dira onartu.

5. Autonomia eta parte hartzea. Jaurlaritzak ikastetxeen autonomia faltaren inguruan egindako autokritika norabide onean doala uste dugu. Hala, ikastetxeei autonomia gehiago ematea begi onez ikusten dugu, kudeaketan (jangelak barne), proiektu pedagogikoan eta baita irakasleen perfilak eskatu zein kontratazioak egiteko ere (gardentasunez, komunitatearen parte hartzearekin eta administrazioaren kontrolarekin). Baina, autonomian sakontzea eta baliabideak eskaintzea (bereziki egoera ahulenean dauden ikastetxeei) txanpon beraren bi aldeak izan behar dira, bestela, ikastetxeen arteko arrakalak handitzeko arriskua dago. Era berean, autonomian sakontzea ez da eredu gerentzialistatik etorriko, kontrara, hezkuntza komunitatearen parte hartzean oinarritu behar dela deritzogu. Herri Hezitzaileen norabidean bidea eginez, hezkuntza komunitatea eta herria ikastetxeko hezkuntza proiektuan inplikatur. Norabide honetan, autonomia, parte hartzea eta finantziarioa bermatzeko egindako proposamenak ere ez dira onartu.

6. Burujabetza. Proposamena Espainiako legedian enkajatzeko pentsatua dago. LAB sindikatuak adierazi du, oso kezkatuta dagoela Espainiar Estatuaren zentralista indartzen ari delako, 155. artikulua Hezkuntzaren bidez inposatuz: curriculum dekretuei helegiteak jarritz, oposaketetarako plaza kopurua mugatuz, sexu bidezko segregazioa bermatuz, errebalidak inposatuz, Eskola kontseiluak atzera bota du emendakin oso ximple bat: Eusko Jaurlaritzak, EAEko Hezkuntza Komunitatearekin batera adostutako Lege Berria Espainiak errespetatu egin behar duela. Beraz, Eskola Kontseiluak ez du Espainiar Estatuaren inposaketan aurrean, etorkizuneko Hezkuntza Legea hemen erabakitakoa izan behar dela argi eta garbi adierazi nahi.

Gauzak horrela, Euskadiko Eskola Kontseiluaren ebazpenari ezetz esaten LABek boto partikular honen bitartez.

Ibai Redondo
Iker Frade
Axier San Miguel